BIZITZAREN ZAPOREA

Egunsentia oraindik lo dagoenean, goiza beti bezala hasi dut: lokala argiz betez eta dena prest utziz. Isiltasunak txoko guztiak besarkatzen ditu. Amantala jantzi, eta lehen bezeroen zain gelditu naiz. Minutu gutxira, lehengo bezeroak iristen hasten dira; bakoitzak bere ohitura du: ogi bila etortzen dira, kafe bero baten bila, eta zerbait gozoa hartzera. Kafetegiko leihoetatik goizeko lehen argia sartzen da, eta egindako kafearen usaina airean zabaltzen da. Kanpoan euria egiten duen arren, barruan beroa eta lasaitasuna nagusi dira.

Goiz-goizetik etenik gabe lanean aritzen naiz, herriko jendea eguzkia atera baino lehen lanera joaten baita. Baina ez pentsa lan erraza denik: presio handia sentitzen dut kafearen edo beste edarien prestaketan. Beti dago norbait marmarka hasten dena: hotza dagoela, beroegia dela, zapore txarra duela edo ur gehiegi daramala. Hasieran keinu txiki batekin deitzen naute, baina arazoa konpontzen saiatzen naizenean, ahotsa ozen eta zakar bihurtzen zaie. Lokalak irekita mantentzen den egunetan, ordu asko ematen ditut barruan, herriko kafetegi onena izan dadin. Eta hala ere, adeitasunaren kontrakoa diren pertsonak badauden arren, bezero zoragarriak ere baditut.

Karmele anderea denborak higatutako emakumea da. Hasieran ibiltzea kostatzen zitzaion; orain, gorputz osoa mugitzea. Duela hamarkada bat alargundu zen, baina hala ere, askok ez duten energia amaigabe bat du. Karmelek sarritan kontatzen dit bere eta bere senar ohiarekin bizitako une zoriontsuak. Hitz horien artean aipatzen ditu bisitatu zituzten tokiak eta elkar maite izan zuten guztia. Bi seme-alaba izan zituzten, bakoitza bere bizitzan murgilduta bizi direnak. Ohikoa da elkarrekin egun berezietan bakarrik batzea: Gabonetan, urtebetetzetan, eta batzuetan, urte berrian ere bai. Hurbiltasuna eta konfiantza transmititzen dituen horietakoa da, eta horrek segurtasuna ematen dit berarekin hitz batzuk partekatzen ditudanean. Beti gustatzen zaio nik zerbitzatzea; sarritan esaten dit itsasoaren koloreko nire begiak gustuko dituela baita nire ile argia ere. Bere begietatik jainkosa bat bezala ikusten nau. Beti gauza bera eskatzen du: croissant bat eta kafe-esne bat. Etortzen den ordurako, dena prest egoten da.

Jon herriko poza da; denek ezagutzen dute. Bere grazia nabarmentzen da alderdi guztietan. Egun ilunenetan ere, denoi irribarrea ateratzeko gai da, niri barne. Goizero-goiz etortzen da, beste askok bezala, bizi den lekutik gertu dagoen ikastetxe batean irakasle lanetan aritzen baita. Bere eskolak munduko klase onenak izango dituztela irudikatzen dut: dibertigarriak eta interesgarriak. Gustatuko litzaidake irakasle gehiago bera bezalakoak izatea.

-Gaur ikasleek buruhausteak eman dizkidate-dio Jonek barrez-baina kafe onek guztia konpontzen du.

-Zuk beti ateratzen diozu guztiari alde positiboa-esan diot, umore onez.

-Hori irakasten diet nire ikasleei, ni ere eredu izan behar naiz.

Batzuetan, bere denbora librean ikasleei laguntzen die, zalantzak argituz, eta horretarako herriko kafetegi onenera etortzen dira. Ez da ni baino askoz zaharragoa; 28 urte ingurukoa izango da. Bere bikotea ez da hain alaia, baina bai atsegina eta sentibera. Noizean behin etortzen da lan egiten dudan lekura eta enkargu txiki batzuk egiten ditu.

Azkenik, Aimar dago: bihotzik handiena duen haur jakintsua. Hain da xarmagarria, ogia erostera etortzen denean, txokolatezko palmera bat ere erosten baitio amari. Duela urtebete gaixotu zen bere ama; gaixotasun ezezagun bat du, eta oraingoz ez du sendabiderik. Aimarrek aitarekin batera dirua biltzen laguntzen du, sarrailen denda txiki batean. Bildutako diru guztia gaixotasunaren sendabidea aurkitzeko erabiltzen dute.

-Leire, handitan sendagilea izan nahi dut-aitortzen dit Aimarrek.

-Zergatik?-galdetu diot.

-Gaixo dauden pertsona guztiak lagundu eta sendatzeko-erantzun dit, begirada goxo batekin.

Horregatik, batzuetan ez diot kontsumitzen duenagatik kobratzen. Eta hori gertatzen denean, beti eskerrak ematen dizkit, besarkada bero batekin.

Nire bizitza ez da askoren ametsa, baina eskertuta sentitzen naiz pertsona zoragarriak ezagutu ditudalako. Eta ez, ez dakit nolakoa izango naizen hamar urte barru edo gehiago. Zoriontsua izatea besterik ez dut espero. Badakit gauza bakarra: Karmelek duen energia bera eduki nahi dudala, Jonek duen txinparta eta grazia, eta Aimarrek barruan daraman borondate indartsu bera.